

# Arrasate

P R E S S

1997ko  
uztailak 24  
373. zenb.



San Inazio egunean

## Erromeria Kanpanzarren

30 GALDERATAN: ROSARITO ZEZIAGA • IKUSPEGIA: JESUS LARRAÑAGA  
KULTURA: OSTIELA ALDIZKARIA • IRITZIA: JONE BERGARETXE

# AKELARRE

GOZOTEGIA

*Zure  
momenturik  
berezienak  
ospatzeko!*

**Abuztuan  
zabalik  
getatik  
14etara**

Zarugalde, 34 • ARRASATE • Tel.: 77 00 71

**UDALAITZ, S.A.**

**SEAT**

**Audi**



Musakola auzoa, z/g • Tel.: 79 18 80 / 79 21 25 • ARRASATE



**SEAT AROSA:  
Bide berriak  
zabaltzen!**

**Zein handia den  
txikia izatea!**

**3,53 m.ko  
mundu oso bat!**

**Ekipamendu  
osatuena!**

**SEAT AROSA,  
detalle guztiekin!**

# SEAT AROSA

# Elkartasunaren globalizazioa

Uztailaren 1a eta 4a artean Liman egon nintzen, Peruko hiriburuan, herrialde pobreen pentsamenduan dagoen gai baten inguruko mintegi batean. Ekonomiaren globalizazioaren aurrerakuntza handia eta aberats eta pobreen arteko aldean areagotzea. Elkartasun hitz eder eta erabiliaz munduan gertuago dago erretorikatik errealitateetik baino. Datuak behar izanez gero, hona hemen batzuk kontzentrazioaren eritmo azkarra adierazteko: munduko negozioen %30a 200 multinazionalen esku dago, langilegoaren %0,7a, hau da, 18 milioi langile. Gaintzeko %70a, milioika eta milioika langilek ekoizten eta saltzen dute. Lanaren eta bere aberastasunen banaketa asimetrikoak, berarekin dakar txirotasun handiengan murgilduta bizi diren gero eta lagun gehiagoren bueltarik gabeko margina-zioa. Peruk 24 milioi biztanle ditu, 12 pobreak dira eta beste 5 pobreak baino pobreak, lapurreta eta kalez kaleko salmentaren mugan.



Jesus Larrañaga

**“Horrelako gizarte batek ez du etorkizunik, baina inork ez dio merkatuaren legeari alternatibarik eskaintzen”**

Misiolari gazte batek, Andeatako mendizerran pobreekin batera bizi den Gabi Wenz alemaniarrek, esaten du eurek natura mimo handiz lantzen dutela lurra ailtzurarekin, natura haserretu ez dadin. Teknologiarekin abantailei eskaini nion hitzaldian, sinesgaitz azaldu zen alemaniarra. “Ez nator bat Larrañaga jaunak teknologia-aren inguruan esandakoarekin, pobreak urruntzeko bidea eta natura hiltzen ari den arma bat da. Ez dut uste posible denik pobre denak aberats bihurtzea naturak eztanda egin barik. Kontraesana badirudi ere, mundu pobre eta xumeagoa onartzen dugu elkartasunez, edo ez da ziurra izango kontsumismo asimetrikoaren bila dabilen mundu honetan irauan ahal izatea. Asko gutxi batzuentzat, minez dagoen naturaren oreka sakratua apurtuz”. Eta datu gehiago. Liman martxan daude 2.000 “herri jantoki” baino gehiago, egunero 260.000 otordu ematen dituzte, eskean edo kalez kaleko salmentan dabilzan pobreek irauan dezaten. Egunean bizi dira, biharkoaz ez dakite ezer.

Bitzita eta heriotzaren muga. Gabi Wenzek aitortzen dit, beste gauza batzuen artean, pobreekin bizi izaterakoan galdu diola beldurra zalantzari. Eguneroko zerbait da, aldatzen ez dena. Hizlariaren artean, Ormaiztegi Irizar monseñorea, gaur egun Callaoko obispoa da, Limako distritoan. Elkartasun ekonomiaren aldekoa da, ez digu balio gehiengoaz baztertu eta marginatzen duten neoliberalak. Bera bezalako beste asko deia dardarka dabil txirotasun sistematiokoaren aurka. Horrelako gizarte batek ez du etorkizunik, baina inork ez dio merkatuaren legeari alternatibarik eskaintzen. Quebecoko unibertsitateko irakasle batek iragartzen du: bazterkeria eta marginazioaren arazoa herrialde aberatsetara ere iristen da. Pariseko edo New Yorkeko auzoetan arazo antzerakoak dituzte. Sistemaren ondorio dira. Eta berak espero du iraultza ez dela etorriko herrialde pobreen pariengandik, baizik eta herrialde garatuengandik. Datu berri bat hemen nola bizi diren argi gera dadin. 300.000 biztanle ditu Salvador bailarak, eta toki batzuetan astean behin jasotzen dute ura, biltegietan. “Ur berorik? - galdetzen dut-. Ez dugu erabiltzen”. Eta zonalde hau onenariokoa da, euskal jatorria duen Michel Azcuetak zuzentzen duena. Itzultzerakoan errepikatzen dugu betiko erreflexioa: ez dakigu non bizi garen.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Marian Porcel. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26). **Disainua:** Goia Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Eltxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Kamelo Unibarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arribu, Juan Baulista Agonia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Virginia Urkio-la, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatzailea:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Ohati). **ARRASATE PRESSek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Argazkiak:** J. M. Fernandez Arroia

## 373. zenbaki honetan

1997ko uztailaren 24an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen .....	<b>10/11</b>	Aurrez aurre .....	<b>20/21</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>12/13</b>	Kulturaren txokoa .....	<b>22/23</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>15/17</b>	Azoka plaza .....	<b>24/25</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Kirolak jokoan.....	<b>18/19</b>	30 galderatan .....	<b>26</b>

*Ikuspegia*  
Jesus Larrañaga ..... **3**  
Kirolak jokoan  
Mondraren aurrendenboraldia **.19**  
Kulturaren txokoa  
Ostiela aldizkaria..... **20**  
30 galderetan  
Rosarito Zeziaga ..... **25**  
Asteko gaia  
Kanpanzarko erromeria..... **15/17**

San Inazio egunez, azken 9 urteetan moduan, Kanpanzarren erromeria izango da. Makina bat arrasatear eta elorriar bilduko da bertan

24

osteguna

■ ZINEA

MIB, *hombres de negro*. Alai zineman 7etan eta 9.30etan

■ ZINE KLUBA

*Los asesinatos de mama*. Monterronen gaueko 10.30etan. Eguraldi txarra egi- nez gero, Amaia antzokian. Sarrera: 400 pta. eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

■ ITURBIDEKO UDAKO EKINTZAK

Dantzaldia arratsaldeko 6etan Iturbide egoitzan.

25

ostirala

■ ZINEA

MIB, *Hombres de negro*. Alai zineman 7etan eta 10etan.

26

larunbata

■ ZINEA

MIB, *hombres de negro*. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ FERRERIAS KALEKO JAIK

Goizeko 8etan etxafle- ruak. 12etan txistulariekin kalejira. 4.30etan haur jolasak, bonba japoniarrak eta txoko- latada. 7etan meza San Fran- tzisko elizan. Ordu berean ikurriñaren igoera. Ondoren herri poteoa eta gazteentzat jokoak. Gaueko 9etan herri afaria eta 11etan dantzaldia.

27

igandea

■ ZINEA

MIB, *hombres de negro*. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Arla- ban gaina, Landa, Arroiabe, Gasteiz, Agurain, Zalduondo, Ozaeta, Marieta eta Arrasa- te, 114 kilometro. Irteera goi- zeko 8etan Monterrondik.

■ ITURBIDE EGOITZAN UDAKO EKINTZAK

Goizeko 11etan meza nagusia egoitzan daudenent- zat. Mezan San Viator ikas- tolako taldea izango da.

28

astelehena

■ ZINEA

MIB, *hombres de negro*. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

29

asteartea

■ ZINEA

MIB, *hombres de negro*. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HERRI BATASUNAREN EKITALDIA

Ekitaldi berezia: zentsura mozioaren aurrean Arrasate- ko alkateak herriari. Arra- tsaldeko 7.30etan Herriko pla- zan. Txalaparta, trikitixa eta bertsolariak. Antolatzailea: Arrasateko Herri Batasuna.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**PUB HAIZEA**

arrasate

**Memesa**

79 42 22

# 30 asteazkena

■ **ZINEA**

*Turbulence.* Alai zineman  
7etan eta 9.30etan.

■ **URIBARRIKO JAIK ABUZTUAK 22, 23 ETA 24**

**22an:** goizeko 11.30etan herri krosa gazteendako, eta buruhandiak. 5etan futbol partidu auzoko ezkongabeon eta ezkonduen artean. 6etan pilota partiduak. Gaueko 11etan *Arizgoiti* taldearekin erromeria. 1.30etan IV. dantza lehiaketa.

**23an:** Goizeko 11.30etan meza. 1.30etan txikiteoa. 2.30etan auzo bazkaria. 6etan umeentzat jolasak. 7.30etan bertso saioa. Gaueko 12etan *Kaixo* taldearekin erromeria eta 2etan galtzontzilo eta kulero lasterketa

**24an:** Goizeko 11.30etan meza. 12.30etan jubilatuentzat luntxa. 4.30etan mus txapelketa. 5.30etan buruhandiak. Gaueko 11etan *Nahiko* taldearekin dantzaldia eta ordu berean bolo txapelketa.

■ **ARRASATE 97 LEHIAKETAK**

Ipuin, poesia eta bertso paperen lehiaketa antolatu du aurten ere AED elkarteak. Edozein modalitatetan gaia librea da baina poesiaran kasuan konposaketa eta errima jarri behar da. Bertso paperetan zein doinurako idatzi diren adierazi behar da. Euskaraz idatzitako obra orijinalak eta inoiz argitaratu gabekak bakarrik aurkez daitezke. Lanak urriaren 31a baino lehen ondorengo helbidera bidali beharko dira: AED elkarteak, "Arrasate 97" lehiaketak, Pablo Uranga kalea, 4 behe. 20.500 Arrasate. Epaimahaia AED elkarteak izendatutako zenbait lagunek osatuko dute.

■ **TARTEKO ETA TERMALISMO PROGRAMA**

Gizartekintzak antolatutako Tarteko eta Termalismo programen udazkeneko txandarako izena emateko epea zabalik dago. Tarteko programaren kasuan epea abuztuaren 14a arte luzatuko da urriaren parte hartu nahi dutenentzat, eta irailaren 26ra arte azaroran joango direnentzat.

Termalismo programaren epea irailaren 12an bukatuko da. Eskaera Bergarako Gizarte Zentzuan egin behar da astelehenetan, asteazketan eta ostegunetan goizeko 10etatik ordubata arte. Tel.: 76 21 40. Informazio gehiagorako Arrasateko udaletxeko Gizarte Zerbitzura zuzendu.

■ **MUGARIK GABEKO GAZTEAK VIII. ARGAZKI LEHIAKETA**

Parte hartzeko bi maila: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urteko edozein. Gaia: mugarik gabeko gazteak. Bi modalitate koloretan eta zuribeltzean. Lanen berezitasunak: a) mailan librean eta b) mailan gutxienez 18X24 zm eta gehienez 30X40 zm. Argazki guztiak lema batez sinatu behar dira. Horiekin batera sobre itxi bat, azalean lema eta maila aipatuz eta barruan egilearen nortasun agiriaren fotokopia, helbidea eta telefonoa. Bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake. Helbidea: Udaleko Gazte Zerbitzua, Udaletxea, 20.500 Arrasate. Lanak aurkezteko epea urriaren 10ean amaituko da.

# 31 osteguna

■ **ZINEA**

*Turbulence.* Alai zineman  
7etan eta 9.30etan.

■ **KANPANZARKO ERROMERIA**

Egun pasa, bazkaria eta musika Kanpanzarren.

*Baster-alde*



*Jatetxea*

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

Galartza auzoa • *AREIXABALETA*  
Tel.: (943) 79 24 58

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78

## ESPAINIAR ARRAZISMOA

Uztailaren 14an goizean Madrilen nengoen, aireportuan. Atzerritik nentorren eta bertako berririk jakin ezetan familiari deitu nion heldu nintzela komunikatzeko nahian. Telefonoz euskaraz hitz egiterakoan, guztiz harrituta gelditu nintzen nire aurkako komentario ikaragarri xenofoboak entzuterakoan. Euskalduna nintzelako soilik, nire aurkako mesprezua eta gorroto giroa sentitu nuen. Gero enteratu nintzen: Alemaniako nazien garaitik (Francoren Espainian, Argeliako gudaren garaian Frantzia eta Mussoliniren Italian gertatutako zenbait salbuespenekin), herri baten aurka, minoria etniko baten aurka edo oposizioan dagoen sektore sozio-politiko baten aurka, Europar estatu botere batek antolatutako giza mugimendu handienak ziren.

Espainiar arrazismo eta xenofobia ditugu hemen. Azkenengo bost gizaldietan, ezberdinak diren herri eta errealitate sozio-kulturalak, sistematikoki ukatu dituen espainiar arrazismo eta inperialismoaren aurrean gaude. Zenbait herritan genozidioa eginez, eta zenbait kultura garrantzitsu sakailatuz sortutako Espainiako nazio-inperio aurrean gaude. Oraingotan, komunikazio tresna guztiak iraunkorki eta basati erabiliz, inkisizioak erabilitako satanizazio historikoa, eta Espainiako eraikuntzaren oinarrian dagoen arrazismo eta xenofobia ikaragarria, Euskal Herriaren aurka bideratuz, gure "humanitatea" ezabatzeko nahian.

Eta hemen, argi eta garbi, Espainiako ezkerri bere erantzunkizuna eskatzeko ordua iritsi zaigu. Nola ulertu hainbeste urtetan Espainiako ezkerrek gurekiko eduki

beharko lukeen jarrera internazionalistaren existentzia eza; nola ulertu Espainiako estatuan espainolak ez diren komunitateen autodeterminazioaren eskubidearen defentsa ez egiten; nola "besteen humanitatearen ukatzean" oinarritzen den hain arrazista, xenofobo eta baztertzaila den espainiar nazionalismoa elikatzen duen fronte nazional baten barnean hainbeste urtetan egotea?; nola ulertu arazo politikoen aurrean, irtenbidea demokratikoaren aurka sistematikoki egitea; nola ulertu Espainiako herriari "interkulturalitatean" oinarritutako hezkuntza antiarrazista eta antinperialista ez egitea?

Jakina, guretako egoera ez da ona, baina XX. gizaldia- ren bukaeran euskaldun garenok, Estatu Batuetako XVIII. mendeko beltzak izateko prest ez gaudenez... arazoaren jarraipena segurtatua dago.

*Antxon Mendizabal,  
UPVko irakaslea*

## HAUSNARKETA BATZUK

Migel Blancoren bahiketa meta heriotzaren ostean bizi dugun zurrunbiloaren erdian merezi duen ezer esaten saiatzea erraza da. Baina lortzea, Zutiken kide garenon

iritziz, izugarri zaila da.

Hasteko, badirudi alkattea estreinatuko dugula. Aldaketarena ez da bat ere berria baina oso posiblea ematen du.

Esaten dute aukera zuri margotzen dutela eta horrela ulertu dute *Demokrata gorenok*. Beraz, norbaitek esango lukeenez, "bakearen" eta "guztion ulermenaren" izenean onena, zalantzarik gabe -hain da ona zalantza!-, aldaitzea dela erabaki dute.

Baina, jakina, jende askok zera galdetuko du: eta zergatik orain? Oso erraza da, noiz bestela?

Indar eta batasun-zurrunbilo honeta eta krispazio hitza oso motz geratzen den eta edozein erabaki ondo hausnartu beharko litzatekeen une honetan, bada bere hondar-aletxoa jartzen ausartzen denik. Ez da politiko on baten jarrera, baina horixe da dagoena.

*Demokratiak* -demokrazia?- hitz egin du: *HB isolatzea, eta desagertaraztea, gehiago erreprimitea (ahal bada); alkateak kentzea, kontaktuak ebitatzea, parlamentariak botatzea. Nork (ematen) kentzen du gehiago?*

Demokrazia horrela ulertzen dutenak, ziur al daude nahi dutena lortuko dutela? Gezurra dirudi.

Nola liteke hain bihozkeria diren horiek ezertxo ere ez

egitea masa GALen ekintzak gaitzestera animatzeko. Uler-tezina.

Gure iritziz, demokrazia- ren osasuna horren kideek beren ideia ez dela ez bakar- ra ez onena onartzeko gaitasun- nagatik eta gutxiengoenganako errespetu eta onarpenagatik neurtzen da. Sarritan gutxiengoek historian zehar defendatu dituzten ideietako asko gero guztiontzat lorpenak izan dira.

Kontuz ibili behar dugu indarraren tranparekin. Hau daukazu eta... zas! nik kendu egigo dizut. Eta orduan jende arrunta, gehiengo alegia, lortzeko urteak behar izan ditugun hori barik geratzen gara. Bitartean, negozioa betikoen artean banatzen dute.

Izan ere, "horiei" legeak, hain nahasgarria denak, beste era batera *eragiten* die. Eta hori bai dela gehiengo handi, izugarri, baten iritzia.

Ondo dago ETari hausnarketa eskatzea. Bidezko kausa bat defendatzen duen edozein mugimenduaren lehen premisa izan beharko litzateke. Gainera, gizarte libre eta gizaorragea eraikitzeko, beharrezkoa da biolentzia kontrol etiko eta politiko oso zehatzen pean jartzea.

Baina hausnartzeko erantzukizuna guztiona da eta neurri handi batean beren erabakiekin historiaren norabidea alda dezaketen pertsonena. Estatuak hemen arazo politiko bat dagoela eta horrek Euskal Herriko eskubide kolektiboak kontuan hartuko dituen irtenbidea politikoa eskatzen duela onartu behar du.

Batzuetan "*amore ematea*" ez da galtzearen sinonimoa eta ez da lotsagarria, baizik eta denok espero dugun urrats handi hori izan daiteke.

Azkarra izatea ez da beti berdin jokatzeko, baizik eta beste modu batean frogatzeko gai izatea.

*Arrasateko Zutik*

## Irailera arte irakurle!

Beste askori moduan, ARRASATE PRESSEKOOI ere heldu zaizkigu oporrak, horregatik eskuartean duzuen aldizkari hau izango da azkena iraila artean.

Hori bai, irailaren lehen ostiralean lanurte berriko aldizkaria betiko moduan jasoko duzue zeuon etxeetan, orduko berri garrantzitsuenekin.

Beraz, ordura arte, ondo ibili eta, aukera duzuenok behintzat, ahalik eta ondoen igaro ezazue oporraldia, dena ez da lana egitea eta.

# Gustura hartuko dituzu abuztuko oporrak?



**Isabel Rodriguez**  
Jostuna  
(48 urte)

Ez hainbeste, oporrak hartzen ditugun guztietan Zamorara joaten gara eta. Gustura hartzen ditut, baina abuztuko oporrak ez dira hain bereziak.



**Eugenio Garcia**  
Langilea  
(30 urte)

Bai, urte guztian lanean egotea gogorra da eta. Datoren hilean baino nahiago nuke irailean edo urrian oporrak hartu, baina abuztuan izaten ditut.



**Elena Gual**  
Ikaslea  
(19 urte)

Bai, kanpora noa eta. Dena aprobatu dut, eta oporretan joango naiz.



**Alberto Obregon**  
Langilea  
(20 urte)

Alde batetik bai, zeren lanean egon naiz eta abuztuan oporrak hartuko ditut. Hala ere, orain kontratua amaitzen zait eta beharbada abuztuan lana bilatu beharko dut.



**Maite Barquero**  
Etxekoandrea  
(31 urte)

Bai, deskantsatzea nahi dut eta. Gabonetako eta Aste Santuko oporrak baino hobeak izaten dira abuztukoak. Eguraldi hobeak egiten du, luzeagoak dira...



**Juan Jose Pereira**  
Langilea  
(25 urte)

Jakina. Urte guztian lanean egon ondoren oporrak hartzeko gogoak daukat. Egiptora joango naiz aurten, hamabost egun pasatzera.



**Maribel Barquero**  
Etxekoandrea  
(28 urte)

Abuztuan normalean lan egiten dut, baina aurten ez dut lanik aurkitu. Horregatik, abuztua hilabete bat gehiago izango da.



**Migel Angel Torres**  
Tabernaria  
(37 urte)

Bai, urte osoan zehar lanean egon naiz eta. Tabernan lan egiten dut eta bakarrik abuztuan izaten ditut oporrak.



**PARDO**  
estetika zentrua

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan  
☎: 79 52.17 ARRASATE

## ABUZTUAN ERE ZABALIK!

- Abuztuak 18 eta 19 itxita.
- Larunbat eta jai egunak itxita.
- Ordu-tegia: goizeko 9etatik, arratsaldeko 3ak arte.

# TOUR PORRA MUNDIALA!

Maillot bat egunero eta sailkapen orokorraren irabazlearentzat argazkian duzuen mendiko bizikleta eder hori, horretxek aurten ATB eta Arrasate Press **Lizarralde Kirolak** dendaren laguntzarekin ematen ari garen sariak. Dagoeneko lehen etapetakoak banatu ditugu. Orain arteko irabazleak honako hauek:

- Julian Vicente.
- Milagros Aperribai.
- Josu Azkarate.
- Itsasne Landa.
- Pilar Velez de Mendizabal.
- E. Madinabeitia.
- Itsasne Landa.
- Oier Beitia.
- E. Madinabeitia.
- Maria J. Azkarate.
- J. Luis Fernandez.
- Antonio Rodriguez.

**Igandean bukatuko da Tourra. Horregatik, astelehen iluntzean, ATBko albistegia bukatu eta gero aurtengo Tour Porra Mundialaren irabazleak aldameneko mendiko bizikleta hau nola jasotzen duen ikusteko aukera izango duzue.**



# LIZARRALDE KIROLAK



astea bi hitzetan

■ **Arrasatearrak mendi istripua**

Huescako *Pico Balaitus* mendian istripua izan zuen Luis Iñarra Bolinaga arrasatearrak joan den zapatuan. 37 urteko arrasatearra labandu eta elurtegi batetik behera joan zen. Helikopteroz atera eta Jacako ospitalean ingresatu zuten buruan kolpeak zituelako. Igande gauean, berriz, etxera ekarri zuten.

■ **Plenoan A-20ko hitzarmenak onartu**

Joan den ostegunean udal plenoa egin zen.

Gaiei dagokionez, San Juan parrokiarako beste 50 milioi ematea onartu zen. Puntu horretan EBko eta HBko zinegotziek aurka bozkatu zuten.

Bestetik onartu egin zen Musakolako A-20 guneko beste sei enpresakin hitzarmena sinatzea bigarren faseko urbanizazio obrak eurek gestiona dezaten. Lehenago egin zuten moduan, EBko bi zinegotziek aurka bozkatu zuten. Era berean, Moyua enpresari adjudikatu zitzaion hitzarmena sinatu ez duten enpresen inguruan urbani-

zazio obrak egiteko ardura. Ondoren, enpresa horiek Udalari ordainduko diote kuotaren arabera. Adjudikazio horretan HB kenduta gainontzeko alderdiak abstenitu egin ziren, baina HBkoen aldeko botoa nahikoa izan zen adjudikazioa onartzeko.

■ **J. Carlos Hernandezen elkartasun manifestazioa**

Astelehen iluntzean Juan Carlos Hernando, kartzelan urkatuta agertu zen presoaren heriotza salatzen manifestazioa egin zen Arrasaten. Manifestazioa hasi baino lehenago, Gestorako kide batek salatu egin zuen zigorraren 3/4 beteta eduki arren preso oraindik espetxean egotzen. Ondoren manifestazioa hasi zen Portaloitik "Demokrazia hau da hiltzailea" idatzita zuen pankarta bat aurrean zeramatela. Otalora lizentziatura zihoazela segituan beltzez jantzitako ertzainak azaldu eta hortik jarraitzea debekatu zuten. Manifestariak buelta eman eta Portaloitik Garibaiko errepidera pasatzean, berriro ere ertzainak azaldu eta manifestariak espaloira igo zuten. Une oro er-

tzainak atzetik zituztela jarraitu zuen manifestazioak erdiko kaleetatik. Portaloian amaitu zen manifestazioa Eusko Gudariak abestiarekin.

■ **Legebiltzarreko kideak zuloa ikustera**

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordeko 10 kide Ortega Lara bahituta egon zen zuloa ikustera etorri ziren astelehenean.

Jalgi enpresan egon ostean, zuloak inpresioa sortu ziela adierazi zuten ordezkariak. Juan Antonio Rubalcabak aipatu zuenez, pertsona bat ia bi urtez han egon dela jakitea da gogorrena. Carlos Iturgaitzek, berriz, ikusi zuena kontatzeko hitzik ez zegoela esan zuen.

■ **Ikurriña desagertu**

Igande goizaldean ikurriña eta Santamainako bandera desagertu ziren auzoko alkatetzatik. Santamainako jaiak zirela eta, ikurriña eta auzoko bandera jarri zituzten alkatetzan, baina igande goizean bi banderak falta ziren. Antolatzaileek espero dute broma bat izatea, baina badaezpada salaketa jartzekotan ziren Ertzaindegian.

“ (...) Zaila izango dela gizarte digital euskaldun bat edukitzea. Egia esan, gure merkatuaren indarra mugatua da, eta hori beste zerbaitekin ordezkatu beharko dugu. Betiko moduan izan beharko da, euskararekiko zaletasunarekin.

(...) Praktikoagoak izan behar dugu. Ezin gara puristak izan. Aipatu izan da posible dela lan egitea tresna atzeratuekin. posible da zure zaletu taldean, aisialdirako eta, baina produktibitatea eskatzen den tokietan, lantegi eta administrazioetan, behar dira egun-eguneko tresnak. Eguneko tresna horietan sartu behar dira halako funtzionalitate bereziak, euskarak presentzia izan deza. Ezin daiteke eskatu dena, goitik behera, euskaratuta egotea

(...) Bai, lehenastunak finkatu behar dira. Bata, bulegoetan, ofimatikan, erabiltzen den tresnetan euskarak izan dezala presentzia, gehien erabiltzen diren tresnak horiek dira eta. Eta inportanteena da telekomunikazio sistemetan euskara nola erabiliko den aztertzea. Bestela dena gaztelaniaz etorriko da”.

**AITOR OROBENGOA**

Euskaldunon Egunkaria  
1997-8-20



**DEBARA BIZIKLETA MARTXA**

Arrasateko eta inguruko hamabost lagun joan ziren domekan Debara. Beti moduan bizikletaz joan ziren errekarren berreskuratzea eskatzera, baina orain dela gutxi izandako uholdeak ere present izan zituzten. Eguzki eta Eki taldeen ustez, errekarren arazoak prebentzio politika baino enfoko berria behar du.

## Jaiotzak

- Ainara Perez Jurado. Uztailaren 1ean.
- Andoni Abaunza Guerrero. 4ean.
- Iñaki Barrutia Roa. 8an.
- Gorka Negreira Martinez. 8an.
- Alai Iza Baigorri. 11n.
- Paula Vicente Nogueiras. 13an.
- Ainhoa Ferreira Frutos. 13an.
- Nora Agirre Aranburu. 15ean.
- Haritz Lopez Rubio. 19an.

## Ezkontzak

- Javier Ibañez Aginaga eta Maria Begoña Gonzalez Etxebarria. Ekainaren 21ean. Zibilez.
- Xabier Elkorobarrutia Letona eta Maria Izaskun Insausti Lasa. 28an. Zibilez.
- Eugenio Garcia Fernandez eta Maria del Pilar Herrero Barbero. Uztailaren 1ean. Zibilez.
- Cándido Fernandez Galan eta Antonia Fernandez Lopez. 5ean. Elizatik.
- Jose Ignacio Abanzabalegi Bastida eta Yolanda Gordejuela Gomez. 5ean. Elizatik.
- Miguel Rodriguez Rot eta Ana Isabel Gonzalez Biais. 5ean. Elizatik.
- Venerando Lage Presas eta Milagros Sebastian Royo. 12an. Elizatik.
- Francisco Davila Ortiz eta Maria Victoria Dávila Barquero. 12an. Elizatik.
- Luis Vazquez Sanchez eta Maria Susana Bragado Marin. 12an. Zibilez.
- Kepa Azkue Etxetxipia eta Ines Maria Rocha Gil. 19an. Elizatik.
- Francisco Domingo Gil Vaca eta Maria Rosario Polo Criado. 19an. Elizatik.

## Hildakoak

- Jose Luis Uribarren Zubia. Uztailaren 10ean. 60 urte.
- Juana Maria Hourcadete Laxague. 14an. 87 urte.
- Agustin Merino Tena. 14an. 87 urte.
- Victoriano Arruabarrena Agiriano. 21ean. 66 urte.



Zaldibarren kokatuta dago Mankomunitatearen Enpresa Sustapenerako Zentroa.

# Enpresa Sustapenerako Zentroa, zabalik

Gaur, ostegunean, inauguratu dute Deba Garaiko Mankomunitateak Zaldibarren antolatu duen Enpresa Sustapenerako Zentroa. Zentroak bi solairu ditu, eta solairu bakoitzean hainbat gela dago enpresa bat aurrera aterahi nahi dutenei zuzenduta. Modulu gehienak eta handienak ekimen industrialei zuzenduta daude, eta beste batzuk zerbitzuakoei.

Zerrajeran egiten ari diren zentroa gehienbat unibertsitarietara begira badago, Zaldibarkoak batez ere hezkuntza ez-

arautuen esparruan ikasi dutenei zuzenduta dago. Esaterako, Lantegi-Eskolako edo Lanerako Prestakuntzako ikastaroetan parte hartu dutenei.

Zentroak tokia bakarrik ez, enpresa aurrera eramaten lagunduko dien aditu baten tutoretza ere eskainiko die.

Zein proiektuari txokoa eman, berriz, Mankomunitateko gobernu juntak erabakiko du. Lehenengo, zentroko tutoreak proiektuari buruzko txostena egin eta udaletxeetako enplegu teknikariek kontrastatuko du.

Ondoren, proiektua Mankomunitatera pasatuko da eta gobernu juntak izango du azken hitza. Lokalak gutxienez urtebeterako eta gehienez hiru urterako utziko dira, eta kopuru publiko bat ordaindu beharko bada ere, ez da alokairua izango.

Une honetan, bi eskaera eginda daude eta irailean beste pare bat egingo direla aurrikusita dago. Urte amaierarako zentroaren %40a okupatuta, eta datorren urterako guztiz beteta egongo dela uste da.



## DISCOPOLIS

DISKO KONPAKTOAK • KASSETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK  
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA  
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behe • ARRASATE  
Tel.: 77 02 13

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

# Asteartean jakingo da noiz egingo den Jose Mari Loiti alkate izendatzeko plenoa

Datorren asteartean, Arrasateko HBk egingo duen ekitaldian, zentsura mozioa aztertzeko plenoa noiz egingo den jakinaraziko du Xabier Zubizarretak, oraindik alkate denak. Legeak dioenari jarraituz abuztuaren 7a baino lehenago egin beharko da pleno hori. Herriko plazan egingo den ekitaldi horretan, gainera, mozioaren inguruko balorazioa egingo da.

Zentsura mozioa onartzeko plenoan, eskua altxatuz egingo da bozketa. Mozioa

aurkeztu duten hiru alderdiek ez dute sorpresarik nahi, eta horregatik, euren eskariz bozketa ez da papertxo bidez egingo. Horregatik oraingo honetan oso zaila izango da ezustekorik egotea, eta oportunitik bueltan arrasatearrek alkate berria izango dute: EAJko Jose Mari Loiti. Plenoan hiru-koak aurkeztutako zentsura mozioa ere irakurriko da. Mozioan esaten denez, HBk jarrera intoleranteak bultzatu, eta ez du babesten elkarbizitza zibilizatua.



Jose Mari Loitik 58 urte ditu eta maisu industrialia da.

Behin alkatetza hartuta, mozioa sinatu duten hiru alderdiek agintea nola antolatu erabaki beharko dute. Batzorde informatiboetako buruak izendatu beharko dituzte, eta astelehenetan egiten diren gobernu bileretan zeintzuk egingo diren finkatuko dute. Horrez gain, alkateordeak izendatu eta plenoak zenbatero, noiz eta zein ordutan egingo diren finkatuko dute.

Legeak dioenez, alkate-tza hartu eta 30 egunera plenoa egin beharko da izendapen horien berri emateko.

Hamairu zinegotzik egin dute bat zentsura mozioarekin

## EAJk, PSE-EEK, EAK eta PPk mozioa sinatu, EBko bi zinegotziak abstenitu

Hamairu zinegotziren sinadurarekin aurkeztu zen joan den ostiralean HBri alkatetza kentzeko mozioa. Eguerdiko 12ak baino lehenago iritsi ziren Udaletxera mozioa sinatu zuten alderdietako zinegotziak eta ordezkariak. Komunikabide ugari jaso nahi izan zuten une hori, eta mozioa aurkeztutakoan kazetarien galderari erantzun behar izan zie-

ten zinegotzietan.

EAJko Jose Mari Loitik adierazi zuenez, arrazoi politikoengatik eta Udala gutxiengo batek gobernatzea normala ez delako erabaki dute mozioa aurkeztea. PSE-EEKo zinegotzietan, berriz, ukatu egin zuten mozioaren gaia eurek mugitu zutenik. Euren esanetan, herriak eskatu du. Era berean, ostiralekoa Arrasate-

rendako egun garrantzitsua zela azpimarratu zuten. EAKo Isabel Gallastegik, mozioarena normaltasunez hartzea eskatu zien HBkoei. PPko zinegotziak, azkenik, pozik egoteko eguna zela adierazi, eta Miguel Angel Blanco gogoratu zuen sinbolo bat dela esanez.

Espero zen bezala, Arrasateko EBko juntak mozioaren alde ez egitea erabaki du,

eta alderdi horretako bi zinegotziak abstenitu egingo dira. Abstentzio horrek polemika eta kritika ugari eragin du, baina IUko buruek bi zinegotzietan jarrera defendatu dute. Joseba Ugaldek esan zuenez, hiru-koaren programa antisoziala da, eta beraz, ezin dute horren alde bozkatu. Era berean, Ugaldek dudari jarri zuen HB isolatzea onena ote den.

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA

**SIRIMIRI**

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42

Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduktzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE

Tel.: 79 46 62

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



## MAALA OBRETAN ETA GU JAIETAN

Maala hankazgora egotea ez da oztopo jaiak ospatzeko. Igandean meza entzun eta luntxa izan zuten kale horretan jaiotako edadetuek. Ez kalean eta ez tabernan, atarte batean egin zuten luntxa.



## PROFESIONALAK

## OTE DIRA?

Ez, ez dira profesionalak, baina pilotan jokatzen txukun ibiltzen direla esan behar. Behar bada urte eta kilo batzuk gutxiago izango balituzte Asegarcen edo Altin fitxatzeko moduan egongo lirateke, baina horrek ez du bueltarik! Makatzenako jaietan Alfredo-Jaime eta Julio-Sierra bikoteek partidu polita jokatu zuten. Lehia ere ez zen falta izan eta horren lekuko markagailua, 22 eta 21 Julio eta Sierraren alde.

# Kazetari lanpostua ARKO<sup>n</sup>

**ARKOk ARRASATE PRESSen eta ATBn egun osoz lan egingo duen kazetari bat behar du.** Urtebeteko lan kontratua eskaintzen da, luzagarria.

Interesatuak kurrikuluma bidali uztaila bukatu baino lehen honako helbide honetara:

ARKO, Otalora Lizentziatua 31 • 20.500 Arrasate.

Hautatze frogak irailaren lehen astean egingo dira.

Informazio zabalagoa behar izanez gero, deitu (943) 77 05 65 telefono zenbakira.




**ARKO**

Arrasate Komunikabideak

## ARRASATE PRESSEKO KAZETARI BERRIA

Japondik etorritako bisita jaso genuen joan den ostiralean. Argazkiko laguna kazetaria da eta Frantzisko Xabier santu naparrari buruzko erreportai bat egiteko asmoz etorri da Euskal Herrira. Arrasaten egonda, normala denez herriko komunikabideak ezagutzeko irrika piztu zitzaion eta guregana etorri zen.



### MECA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29  
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan

**MECA**

## DATA

**1794-7-24**

Frantziarren inbasioa hasi zen Gipuzkoan, Moncey generalaren agindupean. Arrasaten ere, eragin nabarmena izan zuen frantziarren etorrerak. Errege bidea bertatik pasatzen zenez, herria biltegi bezala erabiltzea erabaki zuten frantziarrek; ondorioz, herritarrek zeharo txirotu ziren eta agintariak zerga ugari asmatu behar izan zituzten.

Ondorengo urteetan tentsio handia nabarmen nabarmena bizi zen herrian: 1808. urteko irailean, esate batera, frantziar bat zauritu zuten Bedoñaben; urrian, berriz, 2 arrasatear erahil zituzten frantziarrek. Ez batean eta ezta bestean ere, ez zen errudunik agertu.

1813. urtean alde egin zuten frantziarrek Arrasate-tik, eta herria nabarmen jota geratu zen.

## SINESTARAZI NAHI DIGUTE...



Port-Aventuran atera dute argazkia Oier, Arantzazu, Iratxe, Arantxa eta Ainhoak. Bartzelonako jokalaria bertan zirela sinestarazi nahi digute, baina egia esan kasualitate handiegia iruditzen zaigu.

### HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

*Ekitaldi berezia!*

# Zentsura mozioren aurrean Arrasateko alkateak herriari

**UZTAILAREN 29<sup>a</sup>  
(ASTEARTEA)  
7,30etan  
ARRASATEKO PLAZAN**



- Txalaparta • Trikitilariak • Bertsolariak • ...



EUSKAL PRESOK



EUSKAL HERRIRA!

## HERRI BATASUNA



Ohitura zaharberritua

# Kanpanzarko erromeria

Inguruetako pagadirik ederrenetarikoa da Kanpanzar gainekoa. Gutxi izango dira egunpasarako eta hain ondo prestatuta daudenak: janaria gertatzeko ganorazko erretegiak, iturritxoak, mahaiak, zakarrontziak... eta hori gutxi balitz, pagadiaren berezko edertasuna. Gerizpe bikaina eskaintzen diote pago zaharrek Kanpanzarrera hurbiltzen den edonori, horregatik ondo estimatua da eguraldiak laguntzen duen egunetan. Eguraldiak okerrera egiten duenean, berri, apenas inor hurbiltzen den Udaltx azpian dagoen pagadira, horrelakotan Kanpanzar inguru umel eta freskoa delako. Labur esateko: txarrenetikoa eguraldi txarreakin; ezin hobea eguraldi onarekin.

Aurreko deskribapena irakurri eta gero, ez dago ahalegin berezia egin beharrik pentsatzeko jende dezenteren topaleku izan ohi dela Kanpanzar jai egunetan. Etxetik janaria hartu eta eguna Kanpanzarko pagadian igarotzea erabakitzen duen jende dezente dago; baita, ondotik autoarekin pasatu eta apur batean bertan geratzen dena ere; zer esanik ez, mendirako bidean Kanpanzarren atsedenditxoa



Lagun artean egun pasa ederra egiteko aukera izaten da Kanpanzarko erromerian.

egiten duten mendizaleak edo bizikletazaleak. Iturria izaten da azken horien topaleku. Iturria eta bertako ur fresko freskoa.

Urtean zehar toki estimatua den moduan, urteko sasoi honetan, eta zehatzago esanda urteko egun jakin batean, jende ugariaren topaleku izaten da Kanpanzar gaina: San Inazio egunean, uztailaren 31n. Zergatik? Aipatutako datan egiten delako Kanpanzarko erromeria. Hori bai, eguraldi txarra parean izan denean, arimarik ere ez Kanpazarren, nahiz eta San Inazio eguna izan.

## ERROMERIAREN NONDIK NORAKOAK

Elorrioko eta Arrasateko jendea biltzen da Kanpazarren San Inazio egunez. Plana ezaguna eta sinplea izaten da: janaria eraman eta elkarrekin lagun arteko jai egun bat igarotzea, Kanpanzarko erromeria.

Jai honen sorreraz zerbait jakiteko denboran atzera egin beharra dago, orain 40 urtera arte gutxi gorabehera. Horrelaxe azaltzen du Jose Maria Fernandez de Arroiabek, Elorrioko alkateak, Kanpanzarko erromeriaren sorrera. "Elorrioko kuadrila baten ekimena izan zen. Soinujole bat hartu, bazkaria eraman eta menditik zehar urtero San Inazio egunez Kanpanzarko pagadira joaten hasi ziren. Kuadrila haren ondotik beste batzuk ere hasi ziren joaten, nolabait erromeria ofizial bihurtzeraino. Zergatik San Inazio egunez? Aparteko arrazoirik ez zegoen. Jai eguna denez aukeratu zuten San Inazio eguna, baina besteren bat ere izan zitekeen. Ez du beste misteriorik. Orduan ez zen herrietan aparteko ezer egoten, eta pentsatzen dut egun desberdin bat toki desberdin batean igarotzeko modu bat



Jende askok du San Inazio egunez Kanpanzarrera igotzeko ohitura.

## Gerizpe lehorra

**P**agadia aipatzerakoan edonori gerizpe hitza dator kio burura. Eta egia da, arbola gutxi egongo da pagoak besteko gerizpea eskaintzen duenik.

Hala ere, pagoak ere baldintza onak eskatzen ditu behar bezala hasteko.

Euskal Herria pagoarendako paraje egokia da. Ondorioz, Kanpanzar gainak ere egokia izan behar du. Dena dela, aurtan pago dexente lehortu da Kanpanzarraren, eta horregatik bota behar izan dituzte. 30etik gora bota zituzten, San Juanen inguru hortan.

Zergatik lehortu dira baina? galdetuko luke edonorek. Pagoen mozketaren berri eman zigun lagunak, pagadian dauden erretegiatik sortzen den keari jartzen zion pagoen gaitzaren errudun marka, keak pagoei kalte egiten dielakoan. Elorrioko alkateak, berriz, orain urte batzuk bertan egin zen lur-mugimendua aipatzen du pagoen lehortzearen errudun moduan. Lur berria ekartzek momentuan mesede egin ziola pagadiari -dio alkateak- baina luzera kaltegarria izan dela.

Auskalo nork duen arrazoi. Horretarako aditu izan behar. Arrazoa bata zein bestearena izan, garrantzitsua zera da: botatuko pagoak ordezkatzeko kimu berriak sartuta daudela dagoeneko. Txiki samarrak ei dira sartutakoak, eta horregatik handiagoak landatzeko asmoa dago. Basoko legea bete dezatela, "bat botatzen denean gutxienez bi sartu".

**Beñardo Kortabarria**

izan zitekeela".

Kanpanzarko erromeriaren nobedadeak, Elorrioko alkateak esan duen moduan, jende ugari erakarri zuen hasieran. Modu horretan elorriotar asko biltzen zen pagadian, etxetik eramandakoa lagun artean jan, dantza apur bat egin eta mendian umore onez ibiltzeko asmoarekin. Dena dela, hain denbora laburrean hainbesteko indarra hartu zuen ohitura, poliki poliki etorri zen gainbehera. 20 urte inguru besterik ez zuen iraun jaiak. Ia bapatean desagertu zen, sortutako moduan. Arrazoiak aurkitzea ez da erraza izaten. Batek daki zergatik desagertu zen sasoi batean bizi bizi-rik egondako jaiak.

## ARRASATEARRAK ERROMERIAN

Orain bederatzi urte ekin zitzaion berriro Kanpanzarko erromeriari. Jaiaren bigarren aldi horretan, udalek hartu zuten antolatzaileen lekukoa.

Izan ere, Kanpanzar gaineko pagadiaren egoera oke-





Arrasateko eta Elorrioko udal ordezkariak topo egiten dute erromeria egunean.

rrera zihoala ikusi eta tokia atsedentleku bihurtzea erabaki zen. Pagadiaren zatirik handiena Elorriokoa izan arren, lana erdizka ordaindu zuten udalerrri biek. Orduan jarri ziren mahaiak, aulkiak, erretegiak, zakar ontziak, iturria txukundu... jendea gustora egoteko moduan jarri, garbi esanda.

Aurrekoaren antzeko filosofia gorde arren, mendiko erromeria batena, beste itxura bat du ordutik Kanpazarko erromeriak. Hasteko, udaletxe moduan antolatzen da: udalek jartzen dute musika, udal bietako ordezkariendako bazkaria eginda eramaten da, eta arratsaldez jokoak egiten dira bien arte-

an. Lagun giroan igarotzen da eguna, nahiz eta jokoan orduan piketxoa agertu. Elorrioko alkateak diotenaren arabera, azken bederatzi urte hauetan jokoetan hobeto moldatu dira eurak arrasatearrak baino. "Bederatzi urte hauetan behin ere ez dugu galdu. Dokea bera, Arrasateko jokoa dela esaten da, baina gu finago ibili izan gara beti. Behin zera jarri genuen jokoan, erromeria San Inazio egunez ospatu beharrean Berriotoako San Balentin egunez ospatzea. Ez genuen data aldatu, baina irabazi, geuk irabazi genuen".

Ikusten denez, umorea nagusi izaten da Kanpazarko gainera pagadiaren erromerian. Ez bakarrik udal ordezkarien artean, bere kontura doan herri bietako jende ugari ere arrimatzen da eta jai honetara. Mendian, modu sanoan, dantzan, eta lagun artean egon nahi izanez gero, eguraldiak laguntzen badu, badakizue noiz eta non den zita: Kanpazarko pagadian, uztailaren 31n. Ez ahaztu jatekoak eta edatekoak eramaten!

Beñardo Kortabarria

**Jaiaren bigarren  
aldi horretan,  
udalek hartu zuten  
antolatzaileen  
lekukoa.**

**MIKEL LASA, S.A.**  
aseguru artekaritza

**ASEGURU OROKORREN AGENTZIA**

Zure familiaren segurtasuna, aurpegia erakusten ez dizun norbaiten esku utziko zenuke?

**EZ ERABAKI ZURE ETORKIZUNA TELEFONOZ**

**BANKINER**  
A G E N T E A

**FINANTZA PRODUKTUAK**

Inbertsio fondoak, Altxor Letrak, Epe jakinerako ezarpenak, Bonoak, Obligazioak eta abar.

**HIPOTEKA MAILEGUAK**

Maalako Errabala, 33 behea • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: (943) 79 69 00 Faxa: (943) 77 10 74

Motorista

# RAUL JIMENEZ

## Motor munduan ate joka

— **Motor txapelketetan parte hartu nahi duzu. Nondik datorkizu afizioa?**

— Hilabete bat dela Ermuko konzentrazioan egon nintzen eta bertan txapelketetan dabilen mutil bat egin nuen lagun. Berarekin berba egiten hasi eta mundu hori ezagutzeko gogo piztu zidan. Gurasoei komentatu eta hemen nago.

— **Noiztik motorrean ibiltzen?**

— 13 urterekin nire osabak Vespa bat oparitu zidan eta harrez gero nabil. Gainera kuadrilakoak ere motozaleak dira eta ni neu motozale elkarteko partaidea naiz. Askotan joaten gara konzentrazioetara. Valladoliden egon ginen, 12 ordu joateko eta 11 etortzeko.

— **Arriskutsua da motorrean ibiltzea?**

— Normal bazabiltza ez, baina tontokeriak eginez gero, izan daiteke. Karreretan parte hartzeko orduan, abiadurari ezin diozu beldurra izan, bestela akabo. Nik dena dela, oraindik ez dut esperientziarik. Hala ere esan dezaket

errepidean ibiltzea, mendian baino gehiago gustatzen zaidala.

— **Gustoko motorra?**

— Nire gustokoa Honda CBR-600 da. Hasteko Aprilia RS-50 erosi dut. Oraindik 17 urte ditut eta karneta ateratzen dudanean beharbada erosiko dut handiagoa.

— **Kirol garestia da?**

— Apur bat bai. Orain laguntzaile bat daukat, Peugeot, eta beste baten bila nabil. Izan ere, gauzak ondo badoaz irailaren 28an Jaramako karreran hartuko dut parte.

— **Zer diote gurasoek eta etxekoek?**

— Aitari ez zaizkio motorrak gustatzen, amari berriz bai. Lagunak oso pozik daude eta asko lagundu didate.

— **Gustoko gidaria?**

— Onena Michael Doohan da, baina bere neurritik heldzea ez da samurra izango eta gogoia baino zerbait gehiago beharko da.



## SASKIBALOA Poliki poliki taldea osatuz



Arrasate saskibaloia taldeak oraindik ez du bigarren mailan jokatu duen taldea osatu.

Entrenatzailea gasteiztarra izan daiteke eta Arrasaten ibilitakoa. Dena dela, buruan duten gizonak ez du baiezkoa eman eta horren zain dade. Iaztik lau jokalarik jarraituko dute: Iagoba Gamarra, Ander Mallabiabarrena, Asier Dublan eta Iraitz Elorza. Jorge Fernandezek jarraituko duela uste bada ere, oraindik ezin da ziurtatu. Gainontzeko jokalariek gertukoak izango dira, Eskoriatza eta inguruko taldeetan ibilitakoak. Hauentzat aurre-denboraldia irailan hasiko da. Hilabete entrenatzen aritu ondoren, urrian emango diote hasiera aurten denboraldiari.

## ESKUBALOA Eskubaloia taldea bigarren mailan



Arrasate eskubaloia taldeak bigarren mailan jokatu du aurtun. Hasieran lehen mailan jokatzeko aukeraren bat izan zezakeela zabaldu bazen ere, azken orduan gauzak ez badira aldatzen, denboraldia aipatutako mailan hasiko dutela esan dute arduradunek. Talde honetako partaideek oporrak izango dituzte abuztuaren 26a arte. Egun horretan arratsaldeko 6etan aurre-denboraldiko lehen entrenamendua egingo dute Musakolako kiroldegian. Entrenatzaileari eta jokalariei dagokienez badago aldaketarik. Ibon alzelaik ez du taldean jarraitu. Bere ordean Rosa

Lasagabaster izan daiteke berriro ere lehen entrena-tzaile, baina oraindik ez du hitza eman. Jokalarien artean Iñigo Lopez de Abetxukok ez du jarraituko, Sercoin taldera joan delako eta Ibon Enbil Arratera. Bestalde aspaldiko partez Arrasate eskubaloi taldean emakume taldea izango da. Beñardo Balerdik 12 emakume izango ditu bere gidaritzapean. Bi talde hauez gain, kadeteek, jubenilek eta seguruen lehen territorialekoek osatuko dute eskubaloi taldea. Jubenilen entrenatzailea Miguel Salterain izango da. Kadetetan bi aukera daude: Rosak ez badu goiko taldea hartzen bera izango da; hartuz gero, Jesus Mari Herrero. Kadetetan jende bila dabilenez 82-83 an jaiotakook abuztuaren 25an Musakolan aurkez zaitzekete arratsaldeko 6etan.


## MONDRA EMAKUMEAK Bigarren taldea gertu hasteko

Mondrako emakumezko taldea aurrendenboraldiko entrenamenduekin hasi da. Abuztura arte bost entrenamendu egingo dituzte. Aurten Mondrak emakumezko bi talde izango ditu. Beteranoa, Estatu mailan jokatuko duena, eta berria territorialean. Estatu mailako taldearen entrenatzailea Juanina Garai izango da. Jokalarien artean baja bakarra Esti Loiti, eta bost alta: Arantzazu, Giomar, Maite eta Olatz bergararrak eta Esti Aretxabale-takoa. Territorialeko taldea jubenilek Jon Loiti eta Mikel Del Rio dira.

Bi talde hauek abuztu bukaera arte atsedean izan

ondoren, irailean hasiko dira berriro entrenatzen eta urriaren bukaera arte ez zaie liga hasiko.

## RUGBYA Irailera arte atsedena



Euskal Ligan jokatuko du aurten ere Arrasateko rugby taldeak. Iaztik ez da nobedade handirik izango. Patxi Gorosabelek entrenatzaile lana betetzen jarraituko du. Jokalariak ere berdinak jarraituko dute, nahiz eta pare bat zalantza egon ikasketak direla eta. Hauek abuztuaren azken astean ekingo diote lanari eta liga Maritxu Kajoi inguruan hasiko da. Aurten Euskal ligako taldeaz gain, jubenil, kadete, infantil eta gauzak bide onetik badoaz baliteke emakumezkoena ere egotea.

## ATLETISMOA Balantze positiboa atletendako



Arrasate kirolak taldeko atletentzat bukatu da 96-97 denboraldia. Asteazkenean azken proba izan zuten eta hemendik irailera arte atsedena. Irailean entrenamenduekin hasiko dira. Izan ere, azaroan pista estaliko eta krosetako lehen lasterketak izango dituzte. Otsailera arte sasoiaren jartzeko probak eta martxotik aurrera txapelketetakoak. Aurten Arrasate Kirolak taldeak lortutako emaitzak ez dira makalak izan. Atleten artean bat aipatu behar: Unai Sarabia 16 urteko gaztea. Unai 100 metroan Arrasaten izan den marka onena lortu du 11'29 ehunekorekin. Sarabia distantzia horretan Euskadiko bigarrena da eta Gipuzkoako lehena.



Pilotari txapeldun guztiek saria izan zuten

## Makatzeko pilota txapelketako irabazleak

Makatzeko pilota txapelketako finalak jokatu ziren zapa-tuan Obenerrekako frontoian. Mailaz maila guztira sei final jokatu ziren. Partidu lehiatsuak ikusi eta gero, aurtengo txapel-dunek saria jaso zuten. Emaitzak ondorengoak:

### Aurrebenjaminak

Elorza-Jauregi 22  
Urrutia-Bolinaga 13

### Infantilak

Jimenez I-Urkia 16  
Zubillaga-Bergaretxe 22

### Benjaminak

Otxoa-Agirre 22  
Otxoa-Arkautz 13

### Jubenilak

Miranda Anaia 22  
Ormaetxea-Arostegi 20

### Alebinak

Mertxan-Zabaloa 20  
Salegi-Agirre 22

### Afizionatuak

Juantxo-Korta 22  
Zugasti-Uribarren 15

## Abuztuaren 23an Eibar-Alaves Ibarran

Orain dela 25 urte UDA futbol elkarteak afizionatu taldea Estatuko txapeldun geratu zen. Lorpen garrantzitsu hura gogoratzeko neurketa berezia antolatu dute UDAko ordezkariak abuztuaren 23rako. Ibar-rako futbol zelaian bigarren mailako Eibar eta Alaves izango dira nor baino nor. Horrez gain, afizionatu

mailan txapeldun geratu zen taldeko jokalariek omenaldia jasoko dute partidua hasi baino lehen.

Aretxabale-tako UDA futbol taldearentzat aurtengo urte berezia da. Bate-tik elkarrekin 50 urte bete dituelako eta bestetik afionatu taldea Estatuko txapel-dun geratu zela 25 urte igaro direlako.

**XABIER ARZALLUZ** (EAJKO EUSKADI BURU BATZARREKO LEHENDAKARIA)

# “Olatua dago alderdi a

**P**are bat aste badira Xabier Arzalluz Arrasateko Batzokian egon zela egoera politikoa- ren inguruan berba egiten. Berarekin elkarrizketa egiteko zita jarri genuen egunean bertan jakin zen ETAK Ermuko PPko zinegotzi bat bahitu zuela, eta euskal presoak Euskal Herrira ekarri ezean 48 ordura hil egingo zuela. Baitor zegoen orduan EAJ-PNVko buruzagia; elkarrizketa egiterakoan, berriz, bestelako itxura azaltzen zuen.

-Batzokian azaldu zenuen egoera politikoa badu zer ikusirik gaur egungoarekin?

-Ez dut uste gauza gehiegi aldatu denik. Arrasaten bertan nengoela jakin nuen ETAK bahitu zuela Blanco Garrido; hura zen orduko berria. Zer aldatu den? masa sikologiara jo beharko dugu zer gertatu den ikusteko, behin ere ez dugu ikusi eta horrelako mobidarik jendearengandik etorrira. Egia da Ajuria Eneako alderdiek dei-


tu zutela kanpora ateratzea manifestaldi handi bat egiteko, baina uste dut ez zela bakarrik izan gure deia, jendea kezkatuta zegoen denbora gutxian. Otegiren kasuak jende normalari izugarritzko eragina egin zion, hori alde batetik; gero berriz, Ortega Lara nola azaldu zen, horren inguruan egin zuten erakustaldi ikusgarria... horrek ere jendea asko mugitu zuen. Eta jakina, hilketa gehiegi izan da jendearen sikologiarentzat. Horrek aldatu ditu gauzak, eta denbora horretan ETA eta HBren munduak horrelako gauza bat eragozteko ezer ez mugitzeak, oso toki txarrean utzi du mundu hori.

-Eta ondorio modura HB isolatzeko etapa zabaldu da.

-Lehen denbora asko egon g i n e n

esanez HB parlamentura eztabaidatzera joaten ez zen bitartean, HBrekin ez ginela inon jarriko. Gauzak eztabaidatu behar diren lekuan eztabaidatu ez nahi baditu, zergatik bai

handik kanpo? Publikoki ez gineneurekin jartzen. Oraingertatu da arrazoi berri bat, gizon honen bizitzarako oinarrizko eskubidea ez badute defendatu, edo gutxienez salatzen ez badute... zer defendatu genezake elkarrekin? Eskubideak defendatzerakoan denak defendatu behar dira, bai presoena, guk egiten dugun bezala eta bai besteenak, eta lehenengo bizitzekoa da. Guk beti defendatuko ditugu eskubideak, baina gaur beraien eskutik eta beraiekin batera oso zaila da aurkeztea.



“ETAren eta HBren munduan Ermuko zinegotziaren hilketa eragozteko ezer ez mugitzeak oso toki txarrean utzi du mundu hori”

# bertzaleon kontra”

Bide batez, Madrildik ez dituzte bakarrik salatzen eta zigortzen HBkoak, abertzale-tasunaren kontra dabilta. Gertatutakoa aprobetxatuz, izugarriko olatua dago alderdi aber-tzaleon kontra.

**- Alde askotatik, anbi-guetateaz jokatzeko lepora-tzen zaio EAJ-PNVri.**

- Horrekin ibiltzen dira. Euren bidetik ez bazabiltza deitzen dizute bikoitza. Gure bokazioa ez da HBrekin eta ETArekin joatea, baina ezta besteekin ere; gu abertzaleak gara, eta Euskadiren askatasunaren alde gabilta borrokan. Orduan atera dute teoria bat: hemen kaltegarri ez dela ETA; hori bide bat dela, baina ETAr-i armak eskuan jartzen dizkion abertzaletasuna dela, eta hori sustraitik desagertarazi behar dela, bestela beti egongo dela ETArekin bat. Horrekin dabilta. Gainera guk esaten dugu horrelako fenomenoak, gizartearen inguru bat dutenak, ez direla soil soilik poliziaren lanarekin kenduko. Esperientziak erakusten du gauza horiek elkarriketa mahai batean kon-pontzen direla. Denek esaten dute hori, azkena orain hilabete inguru Felipe Gonzalezek berak. Dena dela, hemen arra-zoiari ez zaio garrantziarik

ematen, kontua abertzaletasu-na jipoitzea da.

**- Elkarriketaren bidea aipatu duzu, pausorik ematen da?**

- Bat ere ez. Mayor Oreja eta horiek zorrotz eta hasieran esandakoarekin oso lotuta ikus-ten ditut. ETAk aipatzen du negoziaketa, baina ez dut hor-tik garbi ikusten benetan nego-ziatu eta armak uzteko jarrera

gure estrategia eta gure lehen-tasunak? Bakarrik negoziatu nahi du, eta hori totalitarismoa da. Alternatibak jartzen ditu mahai gainean, baina ez dut sinesten egia denik. ETArekin ekintzek kalte handia egiten diote abertzaletasunari, jende asko jartzen du gure kon-tra. Bertan gero eta zailagoa da abertzale agertzea, baita demo-krata izanda ere. Zer esanik ez Madrilen.

kontrolatzeko oso zaila izaten da. Dena dela, jendea aspertu-ta dago, baina nik uste ez dela probokaziorik egon, jendeak ez zuten probokaziorik behar, momentu berotan, pentsatu barik gainera joan dira. Horiek ez dira izan Jarraik egiten dituen bezalako atentatu kalkulatuak, gainera gertatu dena ez da ezer hainbeste denboran gasolina-umeak eta abarrek batzokietan, kutxetan, herriko etxeetan egin dituzten gauzekin konparatu-ta. Bakoitza bere tokian.

**- Arrasaten zentsura mozioa. Zer ondorio ekarriko ditu?**

- Ah, ez dakit, pentsatzen dut HBkoak gogor jarriko direla. Pena bat daukat, lehe-nengoan behar bezala ez egi-tea. Bateren batzuk ez zuten nahiko PNVko alkaterik edo beldurtu egingo ziren, orain EAkoak dabilta esanez boto isila nork eman zuen. EAkoa izan zen, horregatik ez dago Arrasaten EAJ-PNVko alka-terik.

**- Dagoen giroa egonda, momentua egokia da?**

- Horrelako giroek horre-lakoak ekartzen dituzte, horre-gatik nahiagoko nuen lehe-nengotik behar bezala egin izan balitz. ■

**“Gure bokazioa ez da HBrekin eta ETArekin joatea, baina ezta besteekin ere; gu abertzaleak gara, eta Euskadiren askatasunaren alde gabilta borrokan”**

batean daudenik. ETAk gobernuarekin negoziatu nahi du, ez gurekin, gu bakarrik mezpre-satu, alde batera utzi. Guk esan dezakegu “negozia dezazu, guk ere negoziatzen dugu”, baina hori ez zaio gustatzen ETAr-i. Espainiarrak gara, gobernuari trukean zerbait ematen diogu-lako Euskal Herriarendako zer-bait ekartzen dugunean. ETAk negoziaketa nahi du, baina zer-gatik ez du nahi negoziatzea

**- Giroa oso nahasia dago. Bortxakeriaz berba egitera-koan beti toki berdinerari begi-ratzen da, baina azken gerta-erek erakutsi dute hemen bortxakeria denon eskura dagoela. Jarrera horiek ez dira arriskutsuak?**

- Bai, batez ere jendea azto-ratuta dagoenean, batek edo bestek jendea helburu batera eramanez dezakeelako, erretze-ra edo zenbaiten kontra. Hori

## OSTARKU

ORAIN DISKOTEKA OSOA DOHAN ALOKA DEZAKEZU!

- Ezkontza osteko jaiak
- Despedidak
- Ikasleen afari eta jaialdia

Animatu eta deitu! Tel.: 77 03 17

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa ■ Estimulazio goiztiarra  
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritizitatea  
eta hizkuntz bereziera)  
Logopedia ■ Laguntza terapia  
Mota guztietako eskola arazoak,  
enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia  
Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

# Ostiela! aldizkaria, ikuspuntu desberdinen kaleidoskopia izateko bokazioz

Ostiela! aldizkariko lehen aleak orain dela urte t,erdi ikusi zuen argia. Ordutik, hiru hila-betero gai ezberdinen inguruko artikulo zorrotzak, barregarriak, aintzinako eta gaurko ipuinak, kontu erotikoak, erreportaiak eta bestelakoak argitaratu izan dira zenbait ale-tan.

Azken alean izenburutzen duten "errebista Marco-abertsale" honen egile lau lagun izan dira: azpeitiar bat, ordiziar bat eta bi arrasatear, Balendin Tramon eta Ramon Ugalde. "Euskaraz egiten diren gauzak oso serioak dira gure iritziz, eta zeozer desberdina egitea otu zitzaigun.- gogoratzten du Balendin Tramonek-Ironia landu, euskal kulturako behi sakratuekin sartu, e.a.". Ostiela!-ko egileak ez dira profesionalak. Zenbait dirulaguntzekin, salmentekin eta publizitatearekin inprenta ordaindu eta banaketa eurek egiten dute. "Talde autonomo bat gara eta horrek askatasuna ematen digu ikuspuntu



ezberdinak kaleratzeko edo sexua, pornoa eta tratatzen ez diren beste gai batzuk lantzeko. Azkenean, nahi duguna egiteko". Ostielako lau lagun hauek hala ere, ez daude bakarrik. Asko dira euren burutazio, artikulu, ipuin edo bestelako idazlanak bidaltzen dituztenak, hortik ideia ezberdinen nahasketa.

## KONTAKTU SEXUALAK ETA POESIA

Ostiela!-ren heterodoxiak, mota guztietako idaz-



lanak eskaintzen ditu. Horrela ez da arraroa, azken alean

bezala, sexu harremanetarako kontaktuak eta aldi berean Joxean Artzeren poemak irakurri ahal izatea. "Ikuspuntu serioetatik aldentzen den aldizkari heterodoxoa egiten saiatzen gara, nahiz eta ikutzen diren gaiak ere serioak izan" esaten du Ramon Ugaldek. Erradikaltasuna, kritika eta ironia ez dira falta Ostielako orrialdeetan. "Euskal prentsan gauza onak daude, euskaraz folklorea, bertolaritza eta azokak bakarrik lantzen dituztenak kenduta. Ostiela!-k, ikuspegi ezberdinen aportazioa izan nahi du".


Arrasateko taberna batzuetan eskuratu daitezke aldizkaria, Udal liburutegian ez dagoelako. "Aspaldi aurkeztu genuen aldizkaria liburutegian baina ez zuten harpidetza egin nahi izan -komentatzen dute Balenek eta Ramonek- Euskarazko argitalpenak gutxi izanik, penagarria iruditzen zaigu, erdarazko aldizkari guztiak bertan aurki daitezke eta".



*Oskar Vitoria*

**BITXI LANTEGIA**  
**Zure gustoko bitxiak!**

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)  
Tel.: 77 01 44 ARRASATE



ALVARO ARRIZABALAGA, ARKEOLOGOA

## “Lezetxikik, munduan bakarra izanda ere, legez ez du babesik”

Hilabete honetan Alvaro Arrizabalaga eta bere lau ikasle indusketa lanak egiten egon dira Arrasateko Lezetxiki aztarnategian. Abuztuan azterketa lanak eten, baina irailean berriro ere Lezetxikira itzuliko dira. Izan ere Arrizabalaga arkeologoak esaten duen bezala, Lezetxikin asko dago ikertzeko.

### - Zertan jardun duzue Lezetxikin?

- Iaz hasitako lana jarraitzen, laginak biltzen. Esaterako, landare ikatza jaso dugu ondoren laborategira bidali eta karbono 14aren froga egiteko.

Gure lana patxadaz hartzekoa da, bizitzan behin egiten du arkeologo batek izugarriko aurkikuntza. Ez gara Indiana Jones. Gure lana hauxe da: metodologia bat jarraituz datuak bildu aztarnategi batean, eta gero guzti hori aztertu.

### - Lezetxikin zer falta da ikertzeko?

- Badaude ilun geratu diren puntu batzuk. Jose Migel Barandiaran nahiko pertsona apala eta sintetikoa zen, eta bere idazlanetan ageri den informazioa urria da. Lezetxikiko aztarnategia oso handia da, eta zehaztasun batzuk zintzilik edo argitu barik daude. Bestetik, aurrez egindako indusketetan ez ziren erabiltzen gaur egun erabiltzen diren metodoak, adibidez, karbono 14a. Beraz, orain beste lagin batzuk batu eta horiekin datu berriak ezagutu ditzakegu. Gainera, Lezetxikin fauna, ugaztunak, hegaztiak... ikertu dira, baina lagin horien analisiak ez dira batera egin eta argitaratu. Hau da, analisi horiek ikerlari desberdinek eta urte desberdinetan egin dituzte. Beraz lagin bilketa toki berean eta espezialista guztiak aurrean direla egitea ere falta da.



### - Lezetxiki garrantzia handiko aztarnategia da.

- Bai, baina jendeari asko kostatzen zaio hori horrela dela sinistea. Ez dizut esango Euskal Herriko historiaurreko giltzarri bakarra denik, baina lau bost giltzarri badaude, horietako bat Lezetxiki da. Hala ere ia galtzekotan egon da. Iaz indusketa berria hasi ez bagenu, ez genuke jakingo zelako egoera penagarrian zegoen Lezetxiki.

### - Hala ere Jaurlaritzak ez du oraindik kultur ondare izendatu.

- Hori desastre bat da. Lezetxikitik hamar metrora Lezetxe dago, eta babestuta dago nahiz eta garrantzia gutxiko aztarnategia izan. Lezetxiki, berriz, legez ez dago babestuta. Arrasateko gune historikoan ezin da harri bat mugitu txosten arkeologiko bat eduki barik, eta Lezetxikik, munduan bakarra denak, ez du babesik. Orain Arrasateko Udalak babestu du baina Jaurlaritzak ez.

## aste gazte

### ■ BEKAK

• Atzerriko unibertsitateetan gaztelerazko irakurle bekak. Hispaniar filologian lizentziatuei zuzendua. Epea: abuztuak 10.

• Eusko jaurlaritzak, nekazaritza, arrantza eta nekazaritzako elikagaien arloan profesionariak prestatzeko 12 ikerketa eta garapen beka deitu du. Epea: irailak 8.

• 97/98 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko bekak, izaera orokorrekoak. epea: urriak 15.

• Kirol zientzietako Zentru Nazionalean graduosteko prestatuntza bekak, hezkuntza fisikoan lizentziatuei zuzenduta. Epea: urriak 19.

### ■ LANA

• Amurrioko Aresketa Ikastolak 97-98 ikasturterako lanpostu batzuk bete nahi ditu:

a) DBH-2 Zikloan orduka aritzeko zientzia, letra, heziketa fisiko eta arte ederretan lizentziatuak.

b) Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ordezkapen zerrendak. Epea: uztailak 31.

• Eibarko Ikastetxeak, ingineru edo fisika lizentziatu bat behar du, batxilergoan informatika eta fisika arloak betetzeko.

• Oñatiko Udalak gizarte zerbitzuetako administrazi laguntzaile plaza bat betetzeko deialdia egin du. Epea: uztailak 31.

### ■ ATERPETXEAK

• Oporretan edozein herrialdetara zoazela ere, ostatu merke horiekin kontatu dezakezu. Gazte Bulegoan mundu osoko albergeetako helbideak dituzu.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

## “Jendeari asko kostatzen zaio Lezetxiki aztarnategi garrantzitsua dela sinistea”

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Sorraluzen apartamendua salgai. Tel.: 79 50 71.

• Etxebizitza salgai Makatzenan. Tel.: 79 75 31. Gauzez deitu.

### 3. Errentan emateko

• Peñiskolan pisua alokatzen da uztailean eta irailean. Tel.: 79 57 31.

• Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

• Alakanten lorategia daukan txaleta alokatzen da uztailean eta abuztuan. Interesatuak dei egin 79 40 01.

• Torreviejan 4 edo 6 lagunendako apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta garbigailua ditu. Hondartzaren ondoan dago. Prezioa: 1.500 pta. egunean pertsona bakoitzeko. Tel.: 79 53 18.

• Laredon apartamentua alokatzen da abuztuaren azken astean eta irailean. Tel.: 79 31 47.

• Ikasleei pisua alokagai Erdiko kalean. Tel.: 79 12 20 eta (948) 55 30 83.

• Santo Domingo de la Calzadan 3 logelako pisua alokatzen da abuztuan. Tel.: 79 91 64. Bulego orduetan.

• Jantzitako pisua alokatzen da Zaru-galden. Tel.: 79 27 15 uztaileko gaue-tan eta (946) 84 24 06 abuztuan.

### 4. Errentan hartzeko

• Ikasle gazteak pisu bila. Eskola inguru-ruan bada hobe. Tel.: 74 09 23. Mikel.

• Lau lagun pisu bila gabiltza. Tel.: 73 40 08.

• Pisua alokatu nahi dugu Arrasaten. Gurekin etxe hori alokatu nahiko lukeen bi edo hiru lagun ere behar ditugu. Tel.: 88 52 71. Oihana.

• Lau gelako pisua behar dugu Arrasaten. Tel.: 46 01 23. Aitor. Iluntzean deitu.

• Abuztuan Torreviejan apartamentua alokatu nahi dut lehenengo hamabostaldian. Tel.: 79 57 79.

• Pisu bila gabiltza Arrasaten. Tel.: 88 34 65 Loinaz, 74 23 60 Alaitz eta 12 13 41 Lore.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

### 5. Etxe konpartituak

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

• Arrasaten pisua konpartituko nuke gela bat alokatuz. Tel.: 51 32 40. Tito.

• Arrasaten igogailua duen pisua osatzeko pertsona erresponsiblea behar da. Tel.: 79 23 58. Gauzez

### 9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Munarren garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 97 03.

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Iparragirre kalean (Grupo San Juan) berrituta dagoen beheko solairua salgai. Zerbitzutarako egokituta dago (kontsulta, itxaron gela...) Tel.: 79 52 17.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.:

79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

• Abuztuan pertsona nagusiak zainitzeko gertu. Orduka edo egun osoz. Tel.: 79 45 87.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zainitzeko. Tel.: 79 07 73.

### 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 45 73. Iluntzeko 8etatik aurrera.

• Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

• Datorren kurtsoan ingeleseko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 79 09 11.

• Esperientziadun jostuna behar da denda baten lan egiteko. Tel.: 909 27 40 95. Goizez dei egin.

• Esperientziadun neska behar da abuztuan ileapaindegi baten lan egiteko. Tel.: 79 22 59 / 77 00 56.

• San Viator ikastolak 97-98 ikas-turterako goi-mailako injinerua behar du. Informatikoa izanez gero hobe. Euskara jakitea ezinbestekoa da. Bidali kurrikuluma Arrasateko 90. posta-kutxatilara.

### 19. Bestelakoak

• Lanak euskaratu edota ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz, gasteleraz eta ingeleseko itzulpenak egiten dira. Tel.: 79 79 12. Mila.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Magisteritzan diplomadunak uztailean klase partikularrek emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

• OHO eta DBHko klase partikularrek emanten ditut. Esperientzia eta merke. Tel.: 79 47 35.

• Neska euskaldunak udan klase partikularrek emango lituzke. OHO, REM, edo BUP. Tel.: 79 51 19.

• Ingeleseko klase partikularrek ematen dira uztailean. Tel.: 79 79 12.

• Uztailean BBBko bigarren mailara arteko klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 79 86 06. Itziar.



• Irakasle esperientziadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 74 76.

• Euskaraz zein erdaraz klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 77 04 98.

• Esperientziadun neska batek klase partikularrak emango lituzke, euskaraz nahiz erdaraz. OHO, UBI. Tel.: 79 86 06.

• Biologiako laugarren mailako ikasleak klase partikularrak emateko gertu uztailean eta abuztuan. Tel.: 79 82 42.

• UBlra arteko klase partikularrak ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia.

• Euskal filologiako ikasleak uztailean, euskara, er1dara eta ingeleseko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 29 20. Saioa.

• Injenerutza kimikoak matematika, marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

• Esperientziadun neska klase partikularrak emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 02 74. Ane.

• Injenerutzako bi ikasle matemati-

ka eta fisikako klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 33 39. Aimar eta Unai.

## 21. Eskaerak

• Kontabilitate eta matematika finantzieroko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 48 99.

• Irailaren 8tik 26ra arte frantzeseko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 30 39.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

• Ford Scort 1.3 salgai. SS-T. Egoera onean. Prezioa: 120.000 pta. Tel.: 79 56 82.

• Ford Orion GLD 1.600 salgai. 300.000 pta. negoziagarriak. Tel.: 76 71 12.

• Opel Corsa TR 1.200 autoa salgai. Merkea. Tel.: 79 79 92.

• Dervi Vamos motorra salgai. Tel.:

79 73 42. Beatriz.

• Bi motor salgai. Suzuki DR Big 50. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 34 14. Aitzol.

• Vespa Iris 200 motorra salgai. Bl-AK. Egoera onean eta merke. Tel.: 71 51 29.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

• Ciclon Plus aspiragailua salduko nuke. Erreferentzia: AM-510- Fagor. Tel.: 79 50 96. Alberto.

• Logela osoa salgai. Sofa eta kol-

txioa opari. Tel.: 79 45 87.

• Bigarren eskuko akordeoia salgai. 96 baju eta egoera onean. Atrila eta eramateko karrotxoa batera saltzen da. Tel.: 79 73 18. Ikerne.

• Prestige modelo Alpen-Kreuser karrodenda salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 61 82.

• Arrue Olimpia umeendako kotxea salgai. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 74 09.

• Tabernarako 4 mahai eta 16 aulki salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Tel.: 79 74 09.

• Ezkontzarako soinekoa salgai. 44 tailakoa. Aurtengoa. Merkea. Tel.: 71 51 29.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Somorrostro (Muskiz) edo inguruan ikastera doan jende bila nabil. Tel.: 79 96 28.

### 36. Deialdiak

• Copa Aprilia RS-50 moto txapelketan parte hartzeko babeslea behar da. Tel.: 79 92 95.

NISSAN



Hau da zure jendea, hau da zure etxea.

Aldibi

Aldibi Autoak, S.A

Zigorrola, 1  
ARRASATE  
Tel.: 71 20 02  
Faxa: 79 65 65

Hemen zure amets guztiak egon daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A



Nissan

Aldibi Autoak, S.A

## ■ Rosarito Zeziaga

IBAI-ARTEKO LEHENDAKARIA



**1. Zein da zure horoskopoa?**

Acuario.

**2. Sinestuna zara? Bai.**

**3. Animalia**

**bihurtzekotan?**

Txakurra.

**4. Zure akats**

**bat/gauza on bat?**

Genioa/Langilea  
naizela.

**5. Zerk lotsarazten**

**zaitu? Ezerk ez.**

**6. Amets bat? Pakea.**

**7. Zer kenduko zenuke**

**mundutik?**

Gorrotoa.

**8. Gertakizun historiko bat?**

Suaren aurkikuntza.

**9. Nor miresten duzu? Ghandi.**

**10. Zeri diozu beldurra? Saminari.**

**11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.**

**12. Negar egin duzun azken aldia?**

Aspaldi.

**13. Zer falta zaio Arrasateri?**

Aparkamentuak, bolera, pizzeria.

**14. Eta zuri? Lasaitasuna.**

**15. Lanbidez aldatzekotan?**

Informatika/Itzultzaile.

**16. Arrasateko gustoko toki bat?**

Portaloia.

**17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Ez erretzea.**

**18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco / El Correo.***

**19. Gustoko janari bat? Txorizoa.**

**20. Liburu on bat? Esta noche la libertad.**

**21. Filmerik onena/txarrena? *Lo que el viento se llevó/Lucy Boom y otras chicas del montón.***

**22. Musika talderik onena/txarrena? *Mocedades / Spice Girls.***

**23. Telebistako programarik onena/txarrena? Dokumentalak /*Hoy es posible.***

**24. Egin dizuten oparirik politena? Liburu bat.**

**25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Lanean.**

**26. Oporretarako toki bat? Asia.**

**27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Sukaldaritza.**

**28. Gomendio bat? Bizi eta bizitzen utzi.**

**29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Ez.**

**30. 200 milioi irabaziz gero? Bidaiatu.**

**B**errogei urte dela hasi zen Rosarito dendari lanean. Gaur egun ere, jo eta ke dabil dendako eginbeharretan, eta horrez gain, Ibai-Arteko lehendakaritzaz arduratzen da apiriletik. Langile fina dugu Rosarito.

**OPEL**

*Oporrak  
aire  
zirotuarekin!*



**TAKOLO AUTOAK**

Araba etorbidea, 3  
(ESKATU pabilioia)  
ARRASATE  
Tel.: 79 05 86

# Mondeo da Nagusitasuna.



Norberen kontroletik ibes egiten duten egoerak daude. Horregatik Mondeo berriarentzat alboko airbag-ak diseinatu ditugu. Baina hori ez da Mondeo berriak babesteko egiten duen guztia. Zuharrasunean barantuzago doa. Estructura integrala, deformazio guneekin eta aurrealdeko barra indartzailearekin. ABS balaztatze elektronikoa banaketarekin edo ABS trakzio kontrolaz. Aurrealdeko suspentsio independentea eta atzealdeko Quadralink suspentsio sistema. Segurtasun abal ainguraketa eta pretensoreduna.

*Udako eskaintza berezia: 2.426.000 pta.tik aurrera*

**MUGARRI**

Araba etorbidea • ARRASATE  
Tel.: 79 07 44 / 54 • FAXA: 79 62 54



**KIA KIA MOTORS**

**Deba Garaiko zerbitzu ofiziala  
ARRASATEN duzu!**



**HONDA  
AUTOMOBILAK**

**MENDIOLA**

Araba etorbidea • ARRASATE  
Tel.: 79 20 30

# iKFER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate  
bihurtzen diren  
ilusioak...

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42

**FAGOR** 